Deusto
Facultad de Ciencias Sociales y Humanas
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea
Faculty of Social and Human Sciences

# Nazioarteko Harremanetako graduan sartzeko profila

Nazioarteko Harremanetako graduaren helburua da nazioarteko harremanen sistemaren konplexutasuna, jatorria, bilakaera eta egungo egoera, eragileak, zein faktore eta gatazkatan sortzen diren eta zein planteamendu teorikoren arabera interpretatzen diren aztertzeko eta ulertzeko gai izango diren tituludunak prestatzea. Ikasketa plana osatzen duten gaien bidez, tituludunak aztertuak izango ditu egungo nazioarteko gaiak, ikuspegi politiko, ekonomiko, sozial eta juridikotik, baita nazioarteko erakundeen (Europar Batasuna edo NBE) funtzionamenduaren ikuspegitik ere.

Tituludunak tresna kontzeptualak, metodologikoak eta nazioarteko harremanetako diziplinari berezkoak zaizkion gaitasunetakoak jasoak izango ditu, diziplina horretako berariazko esparruetan graduondoko mailan prestatzen jarraitu ahal izateko modua emango diotenak. Nazioarteko erakundeetako hainbat arlotan, edozein enpresa zein erakundetan lanean aritzeko modua izango du, sarritan politika, hizkuntza eta kultura aldetiko konplexutasuna ezaugarri duten inguruetan. Horrez gain, tituludunak giza eskubideekiko sustapen eta errespetuzko jarrera etikoa garatua izango du, baita berdintasuna, elkartasuna, lankidetza eta bakea bezalako balioekikoa ere, nazioarteko harremanen eragile diren aldetik.

Tituluduna gai izango da era askotako zereginak betetzeko:

- Sektore publikoan: estatuen atzerriko zerbitzuen mailetan (misio diplomatikoak eta kontsularrak; estatuko, autonomia erkidegoetako eta tokiko administrazioetako kanpora begirako erakundeak, etab.); eskualde mailako gobernuen arteko erakundeetan (Europar Batasuna, Europako Kontseilua, NATO, etab.); mundu mailako gobernuen arteko erakundeetan (NBE, Munduko Bankua, Nazioarteko Diru Funtsa, Munduko Merkataritza Antolakundea, etab.); estatuetako informazio eta inteligentzia zerbitzuetan.
- Sektore pribatuan: nazioarteko negozioen arloan (enpresak, merkataritza ganberak); gizarte erakundeetan; gobernuz kanpoko erakundeetan: nazioarteko lankidetza eta aholkularitzan (nazioarteko GKEak, lankidetzako nazioarteko eragileak, politika / ekonomia arloko aholkularitzak eta kontsultoretzak, etab.); nazioarteko informazioan eta komunikazioan (nazioarteko prentsa; gobernuz kanpoko erakundeetako eta nazioz haraindiko enpresetako komunikazio sailak); irakaskuntzan eta ikerketan.